

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2015-EKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den ekainaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen Arabako Foru Aldundiaren (AFA), bere foru erakunde autonomoen (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta Gaztediaren Foru Erakundea) eta bere 9 sozietate publikoen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiari dagokiona.

HKEEk **aldeko iritzia** eman du **urteko kontuen** gainean kasu guztietan.

Txostenak azpimarratu du 2016ko uztailaren 20an **Arabako Lanak, SA**ren Akziodunen Batzorde Nagusiak sozietatea **desegitea** erabaki zuela.

Finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak ondorioztatu du **2014ko** ekitaldi itxierakoaren **antzekoa** dela eta azaleratutako doiketen ondoren gora egin dutela Diruzaintza Geldikin Erabilgarriak -2014an 87,7 milioi euroena izatetik 2015ean 105 milioi euroena izatera aldatu da- eta zorpetzeak -2014an 499,1 milioi euroena izatetik 2015ean 515,4 milioi euroena izatera aldatu da.

Gainera, adierazi da Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta **Finantzaren Iraunkortasunari** buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Artekiritza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzaizela eta horiek **ez dutela salbuespenik** adierazi.

Bai Aldundiak ba erakunde autonomo eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz Diputatuen Kontseiluak 2015eko ekitaldiko 423.438 euroren gastuak baliokidetu dituen (195.241 euro Aldundiarenak eta 228.197 euro Gizarte Ongizateko Foru Institutuarenak), Kontu Hartzaileak txosten negatiboa jaulkia zuela. Honez gain, Gizarte Ongizateko Foru Institutuak 8 kontratu gauzatu ditu, guztira 995.629 euroren zenbatekoan, ezargarriak zaizkion prozedura ireki eta/edo publikotasun bidezko prozedura negoziatuak saihestuta eta Araba Garapen Agentzia, SAU eta Indesa 2010, SL sozietate publikoek, hurrenez hurren, 152.280 euroren zerbitzu bat eta 681.341 euroren lau hornidura publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe kontratatu dituzte.